

Nafarkaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1992ko urtarrilak 17

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Urduri eta totalka hitz egin zien, haien artean estraineko aldiz agertu izan balitz bezala. Aldian aldian begiz jotzen zion erlojuari, goiz ilun hartako lehengo klasea non amaituko zain edo. Aspalditxotik ez zen bere onean aurkitzen eta, betondoek nabariro erakusten zuten haren baitako desozioa: desgogo existenziala.

Ikasleak, beren aldetik, hontzak soilik egiten duen antzera, aldagabe begira zeuden Gizarte arloko irakasleari.

Halamoduz heldu zion kajoitik ateratako liburuari eta, gutxitan egingo zuen eraran, ixilean geratu zen sabaia-ri so eginik...

Jabier, beste horrenbeste bezala, biziro mintzen zuen Sobietarren hondamenak. Sozialismo erreala azaldutako azken irudiak demasian ziren beretzat. Nola ulertu, bada, jendetzak algara artean Lenin haren harrizko aldetetik kendu izana...? Ezin zezakeen jaso eta, aurreko gauean telebistan ikusi zuena jira-biran buruan. Urte askotan zehar amestu eta landuriko utopia, pikutara joana zen honez gero. «Komunista, agian ez; baina, libertarioa izaten segituko dut, sikiera».

Halaz ere, urrutiko mundu hartatik zetorren zartakoa ez zen, hain xuxen, azken boladako bakarra. Goiz hartakoa, askoz ere mundu hurbilago batetik zetorren, gertu-gertutik, eta litekena zen, emalea, aurrean edukitzea.

Iruñear peto-petoa zela, biziki estimatzen zuen bere hiria eta baita nardatzen ere. «Nork bere hiria, dena delakoa, estimu onean izateko ongi ezagutu beharra dauka. Mundu zabaleko zirrikituetatik eroso ibili nahi duenak, ez ditzala bere sortirikoak sekula atzendu. Finean, antzekoak bait dira guziak». Eta adoretu jotzen zuen bere lana hartarako. Ikasleagoak helduko ote zuen ikasbidea. Ez, antza!


Gelara sartu aurretik ikusi zuen prentsan: bururik gabe eta beso bat faltan, erauziak. Aldameneko argazkian: hegazti bi ale mardul, zuri kolorekoak, makilkadaz akaturik zare batean. Titularretan: Gure gaztetxoan azken ganberradak Takoneran.

Behingoan, harrapaladan kolpadan ziren irudiak, barrena zeharo astinduz...: bazihoazen, txalupa berean, Lenin eta Mari Blanca, nonbaiteko errekatatan galdurik, bi zisneren gorpeuk hondora eramana.

...Sabaiatik begirada jaitsi eta, ozta-ozta, esku artean zerabilen liburua, Jose M^a Jimeno Jurioren 'Historia de Pamplona' ireki eta zera esan zien: Artaxonarrak horren ongi kondatzen digunez, Iruñeak ba zuen orduko hartan...

Ruben Beloki, nafar pilotatik sortu len azken harri bitxia

txi Eugi Agoizkoa behin profesionaletan, afizionatu mairi erreparatzen hasia da berriro ere nafar zalegoa, hurrengo teetako izarraren bila. Oso urrunera ez du jo behar izan, abaina, Ruben Beloki burlatarrak aspalditxoan erakutsia zituen dohain eta plantak. Barcelonako Olinpiadetarako DOn programan sartuta, Nafarroako txapelketa eskuratu ten duela gutxi Armendarizen aurka, eta 17 urte izanda ere, ere atzetik atera dira dagoeneko enpresariak. Berak, ordea, zeko jokoa bezain garbia du kaskoa, eta bi urtetako epea zarrri du horri buruz hizketan hasteko. Galarzaren plantak, Retegi du —nola ez!— miresten, eta ongi moldatzen da tzean zein aurrean, lau t'erdiko torneoak bait ditu gusto-coak. Eugi ikusten du hurrengo txapeldun, baina ez dira gutxi izan Agoizkoari irabazi dizkion partiduak...



Ruben Belokik Labrit pilotalekua du etxea.

JOXE

Barnean

KONTRAPASA



Kontrapasaren aldeko erabakia hartzekoa du Gobernuak/IV

ERRONKARIERA



20.000 hitz bildu ditu hiztegi batean Bernardo Estornesek/III

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Carmelo Alcalá argazkilariak herri kirolari buruzko erakusketa dauka ikusgai Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Erakusketa, Herri Kirol federazioa eta Baztango Udalaren laguntzaz antolatuta, beste zenbait herritara joanen da ondoren, hala nola Zangoza, Tuter, Azkoien eta Kastejonera. Elizondon hilak 24 arte izanen da.

Umbra taldearen lanak daude ikusgai Erriberriko Carlos III galerian, mota guztietako pintura eta margoekin. Ordutegia: eguerditik 14.00ak bitartean eta 19etatik 21ak bitartean.

Patxi Idoate Zizur Nagusiko marrazkilariak lehendabiziko erakusketa antolatu du Tafallako kultur etxean. Bertan hogeitun lanak daude ikusgai, batzuk zenbait modulotan banatuta eta gehienak collage teknikaren bidez eginak, setazko paper koloredunen bidez. Erakusketa hilak 26 arte izanen da.

ZINEMA



Azkoiengo kultur etxean zinema zikloa izanen da hilaren 20tik 24era bitartean, egile komikoei buruzkoa. Horrela, astelehenean, hilak 20, Charlotten filmeak izanen dira ikusgai; asteartean Buster Keaton eta Harold Lloyd-enak, asteazkenean Oliver Hardy eta Larry Semon-enak eta ostegunean Laurent eta Mark Sennetenak. Emanakizun guztiak arratsaleko zortzietan izanen dira.

'Europa' pelikula ikusgai dago da-

ERRAN DUTE

Autobidearen inguruan Euskal Herriko jarrerak irauten badu, beste bideak bilatu beharko lirateke».

Jaime Ignacio del Burgo
Politikaria

«Kontrapasaren erabakiak ehiztari eta ekologisten artean zegoen ezatabaidarako giroa hauts lezake».

NAT-LANE
Taldea ekologista

«EEK PSOEn atera deitu eta sartu egingo da».

Koldo Martinez
EUEko partaidea

«Taldeen jenioa behar dugu orain, eta horretarako Ibañez da aproposena».

Pedro Mari Zabalza
Osasunako entrenatzailea


San Sebastian eguna Tafallan

San Sebastian eguna ospatuko du Tafallak heldu den astelehenean, bertako patriaren eguna, alegia. Horretarako, astebeteko egitaraua prestatu du Tafallako Udalak, aste-buru honetan ere hiriari jai giroa emanen diona. Igandean, kilikiak eta buruhandiak arituko dira karriketan zehar, eta arratsaldeko zortzietan zenezuzkoa izanen da Nafarroako Plazan. Ondoren, berbena. Tafalla eta bere inguruak ezagutzeko parada, beraz, asteburu honetan.

Tafalla da Erriberriko merinaldearen gune ekonomikorik garrantzitsuenak, eta bere izenak bi jatorri izan ditzake adituen ustez: 'Al-tafalla' (goiko gunea) edo 'zabala'. Horrek erakusten du hiri honek kultura ezberdinen arteko zubia izan dela. Monumentala oso, Santa Mariako parrokia, XVIII mendekoa, eta Men-cosen Jauregia dira azpimarratze-koak.

Baina bere ondoan dituen herriak ez dira gutxienekoak. San Martin Unx, horrela, muino handi baten gailurrean dago kokatuta, Tourseko San Martineko parrokian (1156) amaitzen duena. Herriak aspaldiko harresien barruan segitzen da oraindik gaur egun, eta ospetsua da ber-

goeneko Iruñeko Golem zinemato-kietan. Lars Von Trierrek egindakoa, kritika ezin hobekak jaso ditu Europa osoko artistak biltzen dituen filme honek, eta, egia esanez, badu zergatik, inpresioa utzi, utziko bait du.



I. MARTIARENA

tako ardo gorria, askoren ustez Nafarroako onena.

Artaxona famatua da, ez ardoengatik, bertan dauden harrensiengatik baizik. Toulusko Saint Sernineko kalonjeek eginda, dorre sendoek zaintzen dute inguru osoa. Herri osoak gotorleku itxura du, eta bere

etxe dotoreek aspaldiko garaia ekartzen dituzte gogora.

Erriberri, nola ez, egun osoa me-rezi du bakarrik berarendako, ez da alferrik Nafarroako hiririk santu eta monumentalena. Bertako bitxia, Gaztelua, Euskal Herriko ingurune aberasgarrietakoa.

Ezohizko tratamendu baten bidez, gerra amaitu berria Alemaniara lan egitera heltzen den amerikar gazte batek aurkitzen duen egoera gogorra kontatzen du. Off-ean dauden aho-tsak teatraltasuna ematen diote peli-

kula osoari, eta planoen pilaketa, txuri-beltzean, eta koloretan, benetan ikusgarria da. Itotzen deneko irudiak, izugarriak.

Club Deportivo Navarrak, bere

ASTEKO PERTSONAIAK

Jose Maria Aierdi



Leader proiektuko burua

Lekunberriko kontzejuko presidente eta Leader proiektuko buruak kritika gogorrak jaso zituen joan den astean Larraun, Basaburu eta Imotzeko zenbait alkate eta presidenteren aldetik, mendialdea gartzeko egitasmo honen barruan «interese pertsonalak» zituela eta. Aierdik berak «autobidearen gaiak erakutsitako jarreragatik bere kontrako kanpaina» zela adierazi zuen, eta Lekunberriko kontzejuaren oniritzia jaso zuen joan den astelehenean. Kontzejuko partaideek Aierdiren lan guztia bertako batzarrekin batera egin zela adierazi zuten, eta Leader egitasmoari buruzko informazioa «ikuski nahi duenendako prest» zegoela azaldu zuten. Lekunberriko presidentearen kontrako agiria Larraun eta Basaburu alkateek izenpetu zuten, besteak beste.

Cesar Hualde



Kitarrajolea

Granadako Andres Segovia lehia-Getaren hirugarren saria eskuratu berri du Cesar Hualde Iruñeko kitarrajoleak, suediar batekin parekatuta. Sari hau munduko garrantzitsuenetakoa da modalitate honetan, eta 24 urteko gazteak bakar lanean aurrera segitzeko asmoak baditu. Izan ere, emanak ditu dagoeneko kontzertu franko, eta hurrengo Iruñean izanen da, Nafar Ateneoak antolatuta. Bertan, XX mendeko musika joko du Hualdek. Orobat diska bat grabatuta dauka, Guitarras Magicas taldearekin eta Joaquin Zabalen zuzendaritzapean. Egun klaseak ematen ditu Zizur Nagusiko kontserbatorioan eta Lakuntzan. Lehiaketan Dowland-en bi lan jo zituen, Sor-en beste bat eta Turinaren 'Fandanguillo' eta Albenizen 'Sevilla' lan ezagunak.

Michael Robinson



Osasunako jokalaria ohia

Behiala gorritxoaren idoloa izan zen Burrelari britaniarrak iritzi esanguratsua bota zituen Canal + telebista katean, Real Madrid eta Osasunaren arteko partidua zela eta: «Gorritxoei zangartean zerbait falta zaie». Iritzia eztabaidagarria izanik —gutxi batzuek jakinen bait dute gorritxoek zangartean zer duten—, taldea barrutik oso ongi ezagutu zutenaren garrantzitsua dator, eta haserrea piztu du taldeko buruen artean. Horrela, Ibañez kapitaina eta Ezkurra presidenteari ez die batera graziaz egin esaldiak, baina Zabalez, beste hitzetan, hori bai, antzeko zerbait esan zuen, eta profesionaltasuna ere dunda-mudatan jarri zuen. Haize bilduak, beraz, Osasunak, hain asmo onekin denboraldia hasi zuen taldean, hain zuzen ere. Oraindik bada-go Robinsoni gezurtatzeko tenorea.

urrezko ezteiak direla eta anto- duen zikloaren barruan, 'Mend- kiekin Muztag Alta mendira (7. eginiko igoera' izeneko diapositi- emanaldia eskainiko du gaur os- la, arratsaldeko 20etan, Iruñeko- rauta kalean, 78ko bere ego- Diapositibak Eugenio Gorrotxe- eta Belen Eguzkirenak dira.

MINTZALDIAK

Amnesty International erak- deak errefuxiatuen gaiari bur- mahaingurua antolatu du gaur- ralerako, arratsaldeko 20. Iruñeko Larraona ikastetxean, tan Maria Angeles Siemens En- xiatuendako Nazio Batuetako- Mailako Ordezkaritzaren lagun- le juridikoak hartuko du parte, baita Javier Puyol Espainiako B- Minitertizako bozeramaileak, E- que Garcia Amnesty Internati- leko partaideak eta Kebir Sabar- rokkoko inmigranteen elkarte- taideak ere.

Fundamentalismo islamiar buruz mintzaldia antolatu du- ostiralerako Nafar Ateneoak, tsal- deko 20etan eta Iruñeko Aurr- Kutzak Armadaren Etorbidean e- aretoan. Bertan Carlos Echeve- Madrilako Unibertsitate Kom- tensesko irakasleak hartuko du p-

MUSIKA

Arkaitz taldeak joko du Lesak- plazan heldu den igandean, arr- deko 19.30etatik aintzinerak.

Piperrak eta LSD taldeek Sarta- dako Anmama tabernan joko e- larunbat gaueko 23.00etatik aurr-

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 9

Astean zehar 8.30etatik 9.eta- Bertatik Bertara Informa- saioa

XORROXIN IRRATIA FM 10

Egunero eguerditik 13.00eta- Informazio Saioa Euskal He- eta mundu zabala.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 8

Astean zehar OMn 14.45el- 15.00etara eta FMn 14.00el- 14.10etara... Herri Kronika.

RNE RADIO 1 OM

Astean zehar 20.30el- 22.30etara... Zuri eta Beltz E- rriketak, erreportaiak, musika

ARALAR IRRATIA FM 10

Astean zehar 13.30etatik 14.00- ra... Bertako bizilagun eta per- naia ospetsuei elkarriketak.

Uskara entegalatzeko

MATTIN, KAPITANSORO / DONOSTIA

Hiztegia osatzeko lehendabiziko saioak 1929an hasi zituen Bernardo Estornesek Izaban, oporrak ematen zituen etxe parean bizi ziren Bidarte etxeko Miguela eta Baixteroko Manuelarekin. Kale estua izanda, buruz buru jartzen ziren hiruak, eta hango solasaldietatik atera ziren hiztegiaren hastapeneko hitzak.

Anekdotak ugari izan ziren garai hartan, eta horietariko bat, herrira «pertsonea arraroa heldu zenean», Estornesen esanetan. Parean zuen etxeandretako batek «a ze abetxuko da kori!» esan omen zion, eta pertsonaia hizkuntzalari ospetsua suertatu zen. Beraiekin ere hizketan hasi zen, eta lanean jarraitzeko adorea eman zion.

Solasaldi horiek izan ziren, beraz, hiztegia egiteko ideia eman zutena. Ondoren, ordurarte argitaratuta zegoen guztiari erreparatu zion Estornesek, eta lehendabiziz, Azkueren hiztegiari. «Hiztegi honekin —dio Estornesk— zenbait ustekabe hartu genuen, akats dezente dagoelako. Adibidez, hitz batzutan, ez zuen 'erronkaria' jartzen, baina gero adibidea, erronkarietaz egiten zuen. Orobat, akats gramatikal franko badago, eta erabilera okerrak. Hala ere, Azkuek egin zuen lana itzela da, zentzu guztietan». Zehaztasun guzti horiek jasota dauzka Estornesek eranskin batean.

Ondoren, Lucien Bonaparte Printzeak jaso zituen testimonioak ere eskuratu zituen Nafarroako liburutegitik, eta hortik aurrera argitaratutako guztia hartu zuen kontutan, hiztegia

gorputzu eta osatzeko. Hainbeste, ezen, bere hitzetan, «oso zaila izan den delat gehiago sartzea. Hala ere, beti ager daiteke eskutitzen bat galduta edota beste adierazpenen bat, baina ezagutzen den guztia jasota daukat».

Hiztegia antolatzeke orduan, gaztelania-erronkarietara egitea erabaki zuen Estornesek, «askoz interesgarriagoa iru-

ditzen zitzaidalako, adierak zirela eta. Horrela, Azkueren hiztegiari buelta eman nion». Ondorioz, seirehun bat orrialde makinaz idatzita, eta 20.000 hitz inguru, adiera guztiekin.

Hiztegia egiterakoan ere pisu berezia izan dute Estornesek berak bizitakoek, eta ongi gogoratzen ditu erronkariaren garai hartako egoera. Horrela, auzo labeak zeuden orduan Izaban, bertan ogia egiteko, eta han biltzen ziren guztiak euskaraz aritzen ziren barra-barra. Berdin, garbitzeko tokian eta dendetan ere.

Estornesen beraren etxean, aitaren partetik aminarengandik aditu zuen Tartaroren ipuina erronkarietaz, «jaso den bertsiorik ekialdekoena. Hain zuzen ere, nere amonaren etxeari Xipiantartaro esaten zioten».

Gerra aurreko garaietan lau mila biztanle inguru zegoen Erronkari osoan, eta gaur egun bi mila inguru dago. 1380ko erroldan, dagoneko mila biztanle baino ez zuen zonaldeak. Horrelako biztanlego txikia hain aberatsa den euskalkien oinarria izatea «arraroa oso» da, Estornesen ustez, «eta hortik atera dut erronkarietara Aragoi Garaian hitzegiten zen euskararen zatia izatea. Bertan Lleidaraino hitzegiten zen euskara, Pallars ibarreraino, toponimiak ongi erakusten duen bezala. Frantziako aldean ere —Biarzo eta Bigorre— euskara mintzatzen zen XVI mendean, Ohienartek adierazten duen bezala».

Orain argitaratzea baino ez da falta, zehaztasun batzuk oraindik osatu behar baditu ere, eta argialetxe publikoa izan behar duela dago egilea, «honekin ezin baitaiteke dirua atera. Ondare bezala uztea nahiko nuke».



Izabako barrietate bitxia

M.K. / DONOSTIA

Estornesek berak jasotako Izaban jaso du, bertakoa izateak bultzaturik eta han ematen zituelako bere oporrak. Zegoeneko, ederki asko konturatu zen Izaban jasotzearen garrantziaz, «ordura arte bildutakoak Uztarroitz eta Bidankozekoak bait ziren batez ere».

Hiztegiaren, baina, eta ondoren jaso dituen argitalpen guztiekin, Erronkari osoko herriko hitzak eta esamoldeak jaso ditu, euskalki oso bat osatzen dutenak. Hala ere, haien ar-

teko zenbait zehaztapen txiki kenduta, badago Izabako barrietatean bakarrik aurkitzen den ezaugarri bat, aditzarekin lotuta.

Hain zuzen ere, izan aditzean ez dago -za erroa, bereziki iraganean, berak jasotakoaren arabera, *ninden/zen/ ginden/ zinden/ zindein/ zren* esaten bait zuten Izaban, ibar osoan esaten den *nintzen/ zen/ gintzen/ zintzen/ zintzein/ zren*-en partez.

Estornesek adierazten duenez, ezaugarri honek garrantzi handia dauka, soilik euskalki honetan, eta Izabako barietatean, aurki bait dai-

teke. Ondoren, beraren antzeko datu bilketak egin arren —Beloki, Koldo Mitxelena—, datu horri ez zaio aparteko garrantzarik eman, zenbait esaldietan agertu arren.

Hiztegiarekin batera ere, Estornesek aditzen forma guztiekin eranskina egin du, bertan erabiltzen ziren hika, zuka eta xuka formak sartuta. Azken hori, Nafarroan, Erronkari, Zaraitzun, eta Luzaiden ziren erabiliak, akaso bestaldeko euskalkiekin zuten —eta duten— harremanak zirela medio, han oso erabili eta arruntak bait dira.

Bestalde, berak jasotako datu guztietan ikus daitekeenez, badaude zenbait aldaketa Erronkari bertan, herriaren kokapen geografikoaren arabera. Horrela, Bidankozen, kasu, Zaraitzuko euskalkiarekin —eta, bide batez, goi nafarrerarekin— harremanak antzeman daitezke. Ildo berberatik, «tamalgarría da», bere ustez, Garden ia daturik bildu ez izana «Aragoitik gertuen izanda, datu interesgarriak eman izan bait zitzakeen Aragoi Garaiko toponimiarekin eta hango euskararekin izan zezakeen harremanei buruz».

Joan den ostiralean, hilak 10, Nafarroako Ingurugiro kontseilariak, Luis Zarralukik, kontrapasako ehizari —hau da,

udaberriko migrazioan bueltan etortzen diren espezien ehizari— baimena ematea erabaki zuen Ehiza Saileko Aholkularitza Batzordean. Horrela,

aurretik zegoen kontrako beste erabakia baliogabetu zuen kontseilariak eta berriro eztabaida piztu da ekologista eta ehiztarien artean.

Kontrapasa bai, kontrapasa ez

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Iaz ikusi ahal izan ziren Nafarroan ehizaren alde azken urte honetako manifestaziorik handienetakoak, gai horri buruz Ehiza Saileko Batzorde Aholkulariak eman zuen erabakiari erantzunez. Gaia, kontrapasako ehizaren kontrako debekua.

Ehiztarien haserrea ez zen nolana hikoia izan, eta manifestazioetan gobernu sozialistaren aurkako adierazpen gogorak ere entzun ahal izan ziren. Orduan ehiztarien ordezkariaren batek azaldu zuenez, «UPNrekin hau ez zen gertatuko». Orobat, adierazpen ugari egin ziren Ingurugiro kontseilari, Federico Tajadura, eta Ehiza Federazioko presidentearen artean.

Gobernuak, orduan, 1989ko apirillean indarrean jarri zen legea hartu zuen oinarritzat debekua ezartzeko. Lege honen arabera, zeharo debekatu dago ehiza udaberriko migrazio garaian. Orobat, ICONA institutuak ere kontrako ikerketak zituela eta, oinarri juridikoak izan ziren nagusi.

Ehiztariak, ordea, usoaren ugari-zearen oreka eta hiltzen zirenen arteko kopuru txikia nabarmendu zuten erabakiaren kontrako adierazpe-

netan, eta baita tradizio handiko ohitura zela ere. Adibide gisa, Estatu-ko beste hainbat zonaldeetan ere ehiza egiten zela azpimarratu zuten.


Joan den ostiralean, ordea, Luis Zarraluki Ingurugiro kontseilariak

Joan den ostiralean, hilak 10, Nafarroako Ingurugiro kontseilariak, kontrapasako ehizari baimena ematea erabaki zuen Ehiza Saileko Aholkularitza Batzordean. Aurretik zegoen kontrako beste erabakia baliogabetu zuen kontseilariak, eta berriro eztabaida piztu da.

baietza eman zion kontrapasako ehizari, eta usoaren ugaritzearen oreka hartu zuen irizpidetzat horretarako. Zarralukik onartu zuen zenbait oztopo juridiko bazegoela, izan, baina «aurten» baietza ematea deliberatu zuen.

Erabakiak, normala denez, polemika berpiztu du ekologista eta

KONTRAPASAREN ALDE ETA AURKAKO JARRERAK



AURKAKO ARGUDIOAK	ALDEKO ARGUDIOAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Kontrapasa legeaz kanpo dago. Gobernu espainiarrek ez dauka onarturik EKTik datozen irizpideei jarraitzen dielako. ■ Gai honi buruz dagoen legea Europako herrialde guztietan bete dezaten exijitu behar da. ■ Usoen birsorkuntza legeen aurka doa eta ICONAK eta beste erakunde instituzionalek egindako kontrako ikerketak badaude. ■ Kontrapasa eraso bortitza da populatze ihardueraren aurka. ■ Usoentzako baino, arazoa handiagoa da garaitu horretan datozen beste espezieentzat: ahateak eta abar 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Europako herrialde askotan-Erresuma Batua, Alemania, Belgika...- usoaren ehiza onartua dago urte osoan, nekazaritzarentzat kaltegarria dela uste dutelako. ■ Nafarroan oso hedatua dagoen ohitura da. ■ Ehiztarien kolektiboa oso zabala da, zabalenetakoa Nafarroan eta oso eskubide zaharrak dituzte. ■ Kontrapasa debekatu zenean, oso sentikortasun gutxi erakutsi zuten ehiza eta ehiztarietiko. ■ Iaz eginiko azterketa teknikoei adierazten dutenez, ez dago arazorik kontrapasa baimendua izan dadin.

I. MARTIAREN

ehiztarien artean, eta hauek pozten diren bitartean, ehiza garaia hogei bat egunetan luzatzen zaielako, ekologistendako kolpe gogorra izan da. Hain zuzen ere, zenbait kexu agertu dira dagoeneko, erabakia hartu zen modua dela kausa.

ANAT-LANEK, kasu, salatu du, aipatu kontseiluaren partaide izanik, horretarako deia ez zuela jaso, eta

ehiztari eta ekologisten arteko «eztabaidarako giroa puskatzea» leporatu dio administrazioari. Taldearen ustez, Administrazioak muzin egin dio eztabaidari, «zaila izanda ere, beti aberasgarria bait da». Gure Lur taldeak ere antzeko adierazpenak egin zituen, eta egunotarako talde ekologista guztien arteko ekintza bateratua prestatzen ari zen.

Ehiztariak, beren aldetik, garbi azaldu zuten euren poza. Joaquín Montero ehiztarien ordezkariak adierazi zuenez, federazioak eginak zituen kontrapasaren aldeko argudio guztiak azaltzeko «eta denek erakusten zuten kontrapasako ehiza legala zela».

Debekua kentzea ez dagokio soilik usoei. Izan ere, kontrapasan urtako espezieak ere harrapa daitezke eta ekologisten arabera, hor dago koska, «ehiztarietiko ezkutatu nahi baidute ere».

Beste espezieekin, bestelakoa da afera. ANAT-LANEren ordezkari batek adierazi zuenez, «antzarak eta ahateak ere harrapatzen dira garahonetan, eta espezie hauen oreka askoz ahulagoa da».

Gainera, eta hegazti horien kopurua 'txikia' izanda ere, alde bakoitzaren balorea bikoiztu egiten da garahonetan, txofrakiak paratu eta kumeak izateko garaia delako, hain zuzen ere».

mintzoak

Bizimodua aztergai

● Gertatu zen Sevillako hura, eta hari buruzko artikuluak, iritziak etabar ez ditugu falta izan. Politikoa ere, noski, zalapartaka ibili dira, ezkandalizatuaren plantak eta piurak egiten, zenbaitek, agian benetan ezkandalizatu, bateon bat.



Aitor dezagun, dena den, gehienok azala latzegi daukagu halako pasadizo batek barrenak bene benetan inarros diezaizkigun. Zoritxarrez Sevillakoaren ohiar-

tzuna erabat itzali ez delarik hainbat jenderen datuak eta joerak biltzen dituen sare informatiko baten berri iritsi zaigu. Hain osatua non Poliziak berak aitortu omen bait du —inbiriak aitortu ote— beraiena baino hobea zela. Ez da makala izango, frankismo garaiko fitxak ere hor nonbait gordeta dituela jakiteko aukera izan bait dugu denbora asko ez dela.

Izua eta beldurra libre dira. Izango da pentsatzen duenik Sevillara buelta bat ematera joan, giltzapean

bukatu asteburua eta kazeta guztietan azaltzea adiskideak egiteko modu bat dela. Litekeena. Poliziak emandako azalpenetako bati zer izena jarri pentsatzen hasi eta neronek bederen ez dut aurkitzen: «Eguerdiko hiruetatik gaueko hirurak arte —Poliziak esku hartu zuen arte, alegia— ez zen inor sartu, ez atera, etxebizitza hartan. Normala al da hori Sevillara dibertitzera joan diren mutil batzuren?» Informatika menperatzeak ematen duen autosufizientziatik nola dibertitu behar dugun esaten hasi zaizkigu, batzuk. Zer kontsumitu genezakeen aztertzen, besteak. Ikara hezurretaraino sartu zait, hezur hezurretaraino. Espia-lana eta informatika bikoteari esker begi handi batek begiratzen digu ateko sarrailetik, unero, etengabe. Eta badakigu, jakin, gizartea irmoki kontrolatzeak daukan garrantzia, baita zer jende-klasek kontrolatu ohi duen ere.

Ez dezagun geure burua engaina. Gaur borroka armatuaren aitzakian zein kontsumoaren aitzakian neurrigabe hanpatzen eta zorrotzen ari den tresnak bihar sorgin-ehizaldia antolatzeke balio dezake, edo eta

borreroak suterako egurketari ekin diezaion. Balio dezake beti balio izan duenerako: ezpataren ahoak dabilzanak otzandutzeke, menea eta ezanean jartzeko. Disidentzia izpirik txikiena ere birrintzeko. Ordenaren ikuspegitik ikusita, guztiz normala da. Aitzitik, onargarria da hori inoiz ezkeraren kultura edo nazio askatasun eta demokrazia erreibindikatu duen hainbatentzat? Damurik, jende gehiegi dago gure artean gizabanakoaren eskubideen zein ingurugiroaren alde ozenki hitz egin jarrera sasi-progresisten atzean izkatatu, eta unean-uneko Pierre de L'Ancreri txeki txuriak ematen dizkiona. «pakea» hitza ezpainetatik erori gabe, hori bai. Jende asko, jende gehiegi.

Hainbeste, non batek ez daki, azkenik, itsututa dauden, koldarrak diren, interes handiak dituzten edo eta ez diren egoeraz jabetzen. Horiek bezalakoek merezia dute, agian sarrailetik begiratzen dion begi handia, beste askok ez, ordea. Haien kontura, haien kontzientziapera Inkisizio Berriak erreko dituenak. Nik bederen ederki dakit zerk ematen didan terrorea.



MANIFESTAZIOAK ugari izan ziren iaz Nafarroan ezezki Euskal Herri osoan ere. Nafarroan lau egin ziren, zonalde ezberdinetan, eta bertan ehizaren apologia egin zen, gobernu sozialistaren kontrako adierazpenekin nahastuta. Ondoren, Donostian Euskal Herri osoko manifestazioa egin zen apirilaren 7an, argazkian ikus daitezkeen bezala. Aurten, erabakiaren zain zeuden ehiztariak, eta behin baimena eskura, autobusak manifestazioetara baino ehizara joateko hartuko dituzte.

Iruñerrian euskaraz mintzatzen zelarik


Bazterrak ikusi asmoz bideari lotzen garenean, maiz, gauza handi ikusgarriez baizik ez gara ohartzen, aurrezki kutxek argitara emandako gidaliburuei fidatuz gero, batez ere. Halako etxea, halako jaurregia, halako tokia, bertze hura... Bertze

batzuei, ordea, begirada gauza ñimiñagotan pausatzen zaie, inon guti aipatuak diren gauzetan, baina esanahi handikoak direnak. Xulapain, Olaibar eta Anue ibarretan ateratako argazkiak dira orrialde honetakoak, negu honetako arratsalde batean egindakoak.



Etsaingo (Anue) hilerrian dagoen hilarria, ondoko lema duela-rik: 'Emen datza Erro Yaben' Dar Urbano Landa etxeko semea. Goyan Bego. 'Erriontako azkenen euskalduna. 1963 urtea'.

MANU GOMEZ



I. MARTIARENA

E. PERUTXENA / IRUÑEA

'Iluabarrian jende aunitz iturrian'. Mezkirizko erran zaharra da, edo, Erroibarren erraten dute, behintzat. Baina beheko argazki hori ikusirik, bertze leku batzuetan ere erranen zuten orain dela gutti arte, seguru aski.

Horien artean, Nabatz herrixkan, beharbada, bertan geratutakoari erreparatuz gero. Argazkiak garbi erakusten digun moduan, Xulapaingo herri horretako iturrian 'Fiter Ichera zazi' esaldia marrazturik dago, hau da, 'Zoaz fite etxera', gaur idatziko genuen moduz. Xulapain Iruñerriko ibarra dugu, noski, Ultzamako bidean Ataburun barrena. Iruñeko jende ez jakinak, Markalaingo mendatea erraten dio Ataburuko lepoari.

Bada, Nabatzen ere, jende anitz biltzen omen zen herriko iturrian ilunabarra heltzen zelarik, emakumeak, batez ere. Hantxe, aska ondoan hitz-aspertuak botatzen zituzten, lu-

ze ele eta ele, emakumeen xarduki merke haiek.

Etxekandreak izanik, 'destenorez' karrikan zebiltzanak, etxeko jaunak kezkatuak eta koleraturik zebiltzan nonbait, afaria prestatu behar zutenak kontu kontari ari zirelako, sukaldean peila birikiarekin prestatzen eta etxeko gizonei behar arreta eskaini beharrean. Beti berant etxera, eta, gizonak gose afariaren esperoan.

Hara non, herriko iturria konponzeko erabakia hartu zuten nabaztarrek, zoritxarreko uztailaren 18a iritsi baino hamar bat urte lehenago, hau da, 1926 aldera.

Konpondu baino, lekuz aldatu zuten, behehixeago egin bait zuten iturri dotore berria. Horretarako zementua paratu, eta, abadagune hartaz baliaturik, plater hutsaren aitzinean zain egoteaz arrunt asperturik edo, iturrirantz abiatu zen Alkaseneko nagusi zaharra. Bidean makiltto bat hartu, eta, artean zementua idortu gabe zegoela, hauxe idatzi zuen: 'Fiter ichera zazi', Alkaseneko etxekandreaki errana eta espreski zuzenduta, antza.

Zementua lehortu eta hantxe gelditu da 'gomendioa', ikusgai, dagoeneko zaharkitu den iturria konponetzen ez den bitartean. Ez dakigu, egia errateko, emazteki nabaztarrek kasurik batere eginen ote zioten esaldian manatutakoari.

OTSAKAIN ETA ETSAINEN Joan ziren Nabaztik Alkaseneko nagusi zaharra eta etxekandrea, txikitik ikasitako mintzaira berarekin eramanik. Halaber, joanak dira herriko eliz atariaren gainean Jesusen Bihotzaren irudia paratu zuten otsakaindarrak, Olaibar ibarrekoak, eta baita Etsaingo (Anue) Urbano Yaben zendua ere, bistan da.

Azken hau 1953an hila, etxekoek, behintzat, euskarazko esaldia idatzi zuten Landakoako semearen hilotzaren gainean dagoen hilarri presatuan. Beharbada, edo, hobe erran, seguruenik, Anueko herri honetan ondotik ere euskaldun izanzen zen, baina hauek omen dira haien mintzairaz gelditzen diren lekuko bakarrak.

Euskarazko esaldiak, beraz, Iruñerria eta inguruko herrixketan, urteak pasa arren, garai bateko mintzairaren lekuko ezkutatugabeko gelditu direnak.



Nabatz (Xulapain) herriko iturrian leitu daitekeen inskripzioa, 1926 aldera egindakoa: 'Fiter Ichera zazi'.

MANU GOMEZ

Gazteendako Zokoa

Amiamoko zuria

Ciconia Ciconia

Bikoteak bizitza osoan zehar mantentzen dira Teilatu eta kanpandorreetan paratzen ditu txofrakiak Toki bera erabili ohi du urtero



Nekazarien laguna

Ederki ezaguna Nafarroa osoan, herri askotako teilatuetan paratzen ditu bere txofrakiak otsaila eta martxo aldera. Nahiago ditu ordoki eta zingirak, baina kumeak izateko garaian zuhaitz, teilatu zein kanpain dorretan finkatzen da.

Bere elikadura, narrasti txiki, igel, arrain, sagutxo, sator eta antzekoek osatzen dute, eta horregatik oso estimatzen dute nekazariak. Gauko harapakariekin ez bezala, fama ona izan du betidanik hauen artean, eta ez ohi ditu oztoporik aurkitu herrietara heltzerakoan.

Hegazti azkarra dugu amiamokoa, eta txofrakia paratu baino lehen, beti erreparatu ohi dio gizakumeengandik jasotzen duen harrerari. Beldurra behin galduta, lanari ekiten dio, eta normalean, urte askotan erabiltzen ohi du toki berbera. Orobat, bikote berbera mantentzen ohi da bizitza osoan. Hiru edo lau arraultz erruten ditu emeak, eta hogeitamalau egun pasata ikusten dute amiamokomeek argia, itsusiak eta luma txuriz estaliak. Gurasoek ez dituzte sekulan bakarrik uzten, eta insektuak jaten dituzte lehendabiziko egunetan.

MIKEL REPARATZ

Gogoan dauzkat nire haurtzaroko egun baketsu zoriontsuak, lagunez inguratuta nengoen garaia, goizero oilarraren kantuak entzuten zireneko egun lasaiak.

Gogora datorkit nire jaioterria, Arriatxaga, han eman bait nituen nire bizitzako lehen hamahiru urteak, neure lagun eta etxekoekin, etxaguntza handi eta zahar batean, seguruenik garai batean Arriatxagako jaunarena izan zenean.

Etxearen aitzinaldean inork ezagutzen ez zuen familiaren baten hamarri higatuak zirauen, mendeetan zehar etxe haren ezaugarri izandako harearriko erliebe nabarmenak. Metalezko apaindura beltzez estalitako gaztain zurezko ate mardul astuna ireki eta ezkaratze hedatsu bat ikusi ahal izan zen, hura inguratzen zuten pareta biluzietako zabalenean zintzilik, egurrezko erretratu mardulak zirelarik.

Sarleku honen monotonia bi atakek hausten zuten, bata ohol bikoitzekoa, non esaldi erlijiosu bat egeri zen, 'Dios garde este hogar', edo halakoren bat; bestea, berriz, txikiagoa eta xeheki apaindua. Lehendabiziko atakek gortara zeraman, aintzinean jaunaren zalditegia izandakoa; abereek sortutako giroa nahiko kiratsua eta itsaskorra bazen ere, maiteki oroitzen dut estarbi lohitsuak. Beste ataka sukaldetako zen, hemen eman nituen neure haurtzaroko urterik zoriontsuenak, hau bait zen familiako elkargunea.

Bigarren solairuan logelak zeuden, oholtza zaratatsu eta sabai garaieko gelak. Gurasoena zen handiena, izugarriko ohe barroko hautsu bat erdi-erdian ikusten zelarik; ez datorkit, ordea, gela honetaz askoz gehiago gogora, debekatua bait nuen hara sartzea, maitasun kontuak zirela ta.

Korredore estuan aurrera jarraituz, bi logela simetrikoki aurki zitezkeen: bata nire Joxe Miel anaia txiki eta arreba Maria Kattalinena; bestea, nire jabea zen, nahiz eta harat gauez soilik joan ahal izan zen, nire amak ezarritako lege garratzek ziotenez.

Beti neure gogoan



Metalezko apaindura beltzez estalitako gaztain zurezko ate mardul astunak ireki eta ezkaratze hedatsu bat ikusi ahal izan zen, hura inguratzen zuten pareta biluzietako zabalenean zintzilik, egurrezko erretratu mardulak zirelarik.

Baina gogokoen nuen gela aldamenekoa zen, neure aiton-amonena, alegia, askotan joaten bait nintzen hara, aitonaren afal aitzineko istorio interesgarriak entzuteratzen. Pasabidearen bi aldeetatik, honi bukaera arte zerraizkion hurrengo hiru logelak hutsik ziharduten, amak zioen bezala, etxauntza hura handiegia bait zen geuretzat.

Etxe hartan gehien atsegin nuen txokoa, ordea, ganbara zen; han pilatzen genuen, urtero, soroan bildutako belar lehor guztia, eta haren artean gordetzen nituen nire jostailu eta sekretu preziatuenak.

Arriatxaga oso herri txikia zen, populaketa urrikoa, garai hartan behintzat, baina hori bai, herririka hartan bizi ginen jende gutxiok bagenekien hark eskaintzen zigun lasaitasun eta bakea ondo aprobetxatzen, eta biztanleen arteko erlazioak primeran zihozten; ezein leku ez litzateke bizitzeko Arriatxaga baino aproposagoa.

Kale nagusia jarraikiz, hogeiren bat etxe aurki zitezkeen, bakoitzak erregetasun eta apaltasun kutsu bat batera adierazten zutelarik; gehienak erdi aroan eraikiak ziren, eta, nahiz eta elkarren ondoan erabat ezberdin eta asimetrikoak izan, edertasun paregabea etxe sail bakar bat osatzen zuten; baina hau gutxi bailitzan, edertasun guzti honi koroa ezartzeko, Herriko Etxea zetxekion, haren egur bipitsuzko egituradun okre koloreko horma latzean gora ageri zen harmarriaz sentitzen ginen harro herritarrok, hemen honako hitz latinoak zeudelarik: 'A LAS ARMAS DE LA NOBLE VILLA DE ARRIETXAGA. ANNO DOMINI MDXVIII.'

Baina herriak —kale nagusia alde batera utziz— bazuen beste zati bat, ez aurrekoa bezain dotorea, baina bai

bero eta adiskidetsua; hau, abeltzainen aldea zen, artzainen neuregoitza, beraz, urtean zehar denbora gehienaz hutsik ziharduen auzoa. Leku honetan, parodoxikoa badirudi ere, eliza zegoen, ez oso handia, baina bai zaharra. Eliz erromaniko honi zetxekion Apezarena izeneko etxean herriko erretoa bizi zen, On Kamilo; hirurogeiren bat urteko gizon mardul zen On Kamilo, eta bere ikasle gazteei ematen zizkien belarrondokoak zirela eta zen ezaguna, honexegatik ez nion begikotasun handirik hartu.

Nik hamahiru urte nituela etorri zitzaion zoritxarra Arriatxagari, 1918. urtean; hau izango zen neure bizitza ilundu eta behin betirako lurjota utziko ninduen data. Maiatzeko arrats hartan On Kamiloren katekesi klaseetatik etxerantza nindoan, masailak gorriturik baina alaitu, artzainen kalean zehar aringa. Jendea, oihuka, alde batetik bestera

zihozten, laguntza bila; ni berehala urduritu nintzen eta ahal nuen bizkorren kale nagusirantz abiatu nintzen; orduan ohartu nintzen zer nolako katastrofea gertatu zen: mendeetan zehar zutik iraun zuen eta hogeitaz osatzen zuten blokeak sutan zirauen, eta nire etsipena gure etxea su gar kupidagabeek inguratuta zutela ikusi nuen lehertu zen. Herritar guztien artean sutea itzali genuenean, lehenengo erreakzioak hasi ziren, eta hildako kopurua izugarria izan zen; mementu hartan etxean zegoen ezeinek ez zuen bizirik ateratzea lortu. Geure artean, Mari Kattalin, ama eta hiruko ezik, gainontzekoek bizia galdu zuten. Gerago, sutea herritik gertutako piztutako txondor batek eragin zuela esan zen.

Amak, etxerik gabe gelditu ginela ikusirik, Kattalin eta ni hartu eta Ameriketarantz untziratu ginduen; orduz gero ez dut herri hura berriro ikusteko astirik izan.

Gaur, 1991. urtean, lauogeitaz zazpi urte ditut, eta Montevideoko ospitale geriatriko batean bizi naiz, nire Arriatxaga maitea inoiz ahanzikoz ez dudaren ziurtasunez.

KAZKARROAN

92

Urte honetan Espainian izanen diren ekitaldi erraldoiak direla eta.

Madrid, Barcelona ta nola ez Sevilla bertan azalduko da kriston kaka pila larogeita hamabia amaitu dadila edo bestela danak harturik motxila urruti joango gara pakearen bila

Unai, Eba, Inazio Amaia eta Jon ez gara Carl Lewis ez ta ere Ben Jonson eta kolonizatzen ez ginan gu egon hor gure antzekorik nola ez dan inon goazen mendira eta besteak hor konpon

Unai Basterra, Eba Bakedano, Inazio Gracia, Amaia Alonso, Jon Uribeetxeberria

Zaharrak berri

Gure mahaia mahai onradu, ez jan ta ez sobradu Gehiegirik gabe, nahikoa jaten dena.

Arbizu

Txapelik haundienak ez du buru hutsik betetzen Zentzugabea beti buru huts.

Igantzi

Zeruko atea jotzen du norbaitek eta San Pedrok galdetzen du:

—Nor da?
—San Migel
—Utz itzazu bi kaxa.

LETRA ZOPA


E R E A D N I A I R E B
T L K Z B N X O N E E M
K Z O E Z A A T I O L E
R A U M H R N I B R E N
O L K Z E N I R Z I R D
I T I O G N A R A M R A
E X A I A E D D I E A U
S U N P Z I R I E N L R
A E E Z T N A L U D A R
L T A D I M E N D I K A
R A Z T E K R A K L Z E
A T I E R R U A K Z E H

Aurki itzazu letra zopa honetan Nafarroako mendi ezagunen izenak. Mendion izenak ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Bizi Bizian

Club Deportivo Navarra mendizale

taldeak urrezko ezteiak ospatuko ditu aurten, egitarau zabal baten bidez. Aitzindaria Nafarroan, Obere-narekin batera, egun Euskal Herriko talde-rik nagusienetakoa dugu, eta bere mila eta bostehun bazkideek inoiz izandako kopururik altuena osatzen dute. Jende berria historiaz betetako talde batendako.



1942tik, mendi taldea osatu zenetik, finalisten feria egin du urtero urtero CDNk, mendi gailur ezberdinetan. Argazkian, hirugarrena, 1945an, Zuriain mendian. Urte hartan ere buzoi berria paratu zen bertan. PATXI RIPA

Kaskoetan idatzitako historia

PATXI ULAIAR / IRUNEA

CDN 1940 aldera osatu zen Iruñean, eta garai hartan hiru ziren sailak: futbola, txirrindularitza eta saskibaloia. Ondoren heldu zen mendizale gazte talde bat, eta mendi saila osatu zen.

Hala ere, denboraren poderioz, eta beste hainbeste taldetan gertatu den bezalaxe, mendizaleak bakarrik gelditu ziren. Futbol taldea hirugarren mailaraino heldu zen, baina Osasuna aldamenen egoteak ez zien leku handirik uzten. Txirrindularitza ere talde sendoa zuten ondoan, Union Ciclista Navarra, eta saskibaloian arazo larria topatu zuten. Talde oso ona izanda ere, soilik militarrek egindako zelaia zegoen orduan jokatzeke, baina gerra ondoko garaian birmoldaketa izan zen Armadan ere, eta bertan zegoen erregimendua desagertzean, zelaia ere desagertu

egin ziren. Egun batean, Mercaderes Sean zuten lokalean soilik mendizaleak gelditu ziren. Horiek egin ziren lokalaren jabeak, eta 1942rako, CDN mendi taldea zen, ez beste.

Aldaketa hauek, baina, arrastoa utzi zuten taldean, eta taldearen orduko armarran ere futbolaren eragina antzeman daiteke garbi, diferentzia bakar batekin: erdian baloi bat izan beharrean, Hiru Erregeen Mahaiaren irudia. 1945ean orain duten armarrira egin ziren bazkide batek.

Garai hartan, eta beste kiroletan ez zegoen kutsu politikoa zegoelakoan, mendi talde bat sortzeko egin beharreko eskakizun eta paperak ez ziren nolanhikoak, eta burubelarri sartu zen horretan Club Deportivo Navarra. Kostata ere, 1942ko otsailean eskuratu zuen taldeak beharrezkoa zuen baimena, Espainiako Mendi Federazioaren eskutik.

Garai hartan soilik Oberena ze-

goen Iruñean mendi talde gisa antolatuta, baina Angel Oloron CDNko presidente ohiak adierazi duenez, honek ez zuen inoiz inolako arazorik federazioarekin «Accion Catolicaren beste adar bat zelako». Urte askotan bi talde hauek baino ez ziren izan Nafarroan.

Partaideei dagokienez, baina, beti izan zen nagusi CDN, «askotan —dio Oloronek— Oberenak ezin izan bait zituen autobusak bete. Hain zuzen ere, neskei ez zieten uzten mutilen autobus berean joaten».

Garai hartan ere, bazeuden arazoak autobusekin, «bereziki gasoil eta gurplekin, eta askotan Carmelitasen goizeko seieta meza entzun ondoren, tren hartzen genuen, Sakana aldera joateko, edo Irati eta Plazaolakoarekin beste tokietara abiatzeko».

Lehendabiziko urte haietan, Nafarroan zegoen igande gehien hel-

burua. «Opor garaian, orain ez bezala, Belagoara joaten ginen, edo Aizkorri, Aiako Harrietara, eta abar. Ondotik, garaiak aldatzen ziren neurrian, hasi ginen ateratzen. Lehendabizi, Ordesa, gero Aneto, Picos de Europa, eta, azkenean, Alpeetara».

Garaiak, baina, franko aldatzen dira, eta beraiekin batera, ohiurak eta pertsonak. Lehengo mendizaletasuna galdu denik, baina, ez du uste Oloronek, «mendiak beti eskatu bait du sakrifizioa, eta hori ez da aldatu, inondik inora».

Orobat, eta «mendiaren arima mantentzeko», lehiaketarako grina baztertzen saiatzen ari dira taldeak antolatzen dituen ekintza guztietan.



Horren lekuko, 'Belagoako Goimendiko ibilbidea' da, mendiko eskien bidez egiten dena. Bertako sariak partaide guztien artean banatzen dira eta.

Aterpetik ia hotelera

P.U. / IRUNEA

Belagoako aterpea gaur egun Euskal Herriko hoberenetakoa izanda, zenbait berrikuntzari ekin dio CDNk, goitik behera aurpegia ezezik, barrukoak ere aldatzeko. Izan ere, hasierako bere izateko arrazoiak franko aldatu dira urteak pasata, eta aterpe arrunta izateko jaio zenak urberoko dutxak izango ditu gutxi barru.

Aterpea egiteko lehendabiziko asmoak Belagoako ibarran bertan zeuden kokatuta, eta CDNko bazkideei zuzenduta. Oloronek gogoratu duenez, «askotan joaten ginen Belagoara, eta Añamendira helteko hamalau orduko ibilaldia genuen, guztiz nekosoak. Hortik etorri zen aterpea eraikitzeke asmoak». Ga-

rai hartako errepidea 11 kilometroan amaitzen zen, baina aterpearen asmoarekin batera errepide berriarena ere azaldu zen orduan. Horrela, eta behin-betiko Zuberoako mugaraino heldu behar zuela iragarri zenean aukeratu zen aterpearendako lekua.

Erronkariko Batzar Nagusiak erraztasun guztiak eman zizkion taldeari, baita lurra ere eta lekua aukeratzeaz bertako goardia bat arduratu zen: Julian Baraze Ustes. Azkenean, 1971n zabaldu zituen ateak aterpeak, lehendabiziko asmoak agertu eta zazpi urte beranduago.

Mendizaleendako aterpe polito bat, beraz, helburu bakarra hasieran, baina denboraren poderioz eta aurrikusita ez zeuden zenbait gertaera zela kausa, aterpea baino ia hotel bat aurkitu zuten mendizaleek, horrek


dakartzan aldeko eta kontrako ondorio guztiek. «Hasieran uste genuen —dio Oloronek— baino arrakasta handiagoa izan zuen bideberriak, eta ondotik Aretzeko eski zentrua egin zuten. Ondorioz, Belagoa gune garrantzitsu bihurtu zen Piriniotako alde honetan, eta horrek gaitu egin zituen lehendabiziko helburuak».

Kezkak, nola ez, egun bertan dagoen jende pilaketaren aldetik datoz, eta batzutan aterpea ez egitea hobe izanen ote zeneko kezka dute CDNn. Oloronen ustez, baina, Belagoa aldatu duena ez da aterpea izan, «errepidea baizik, eta horretan gu ez gara partaideak izan. Bestalde, bere funtzioa ere betetzen du, elurretara joateko tokia beharrezkoa zelako, eta bertan ere irrati bat dagoelako Nafarroako SOSek erabiltzen duena».



Belagoako aterpea, 1970ean, zabaltzeko lanak azken unetan zeudela. A. OLORON

Ruben Beloki.....pilotaria



Ruben Beloki Iruñeko Labriten.

JOXE

Burlatako 17 urteko mutiko sendokoteak eskuz banakako Nafarroako txapela eskuratu zuen duela bi aste Labriten, Armendariz aise menderatu ondoren. Horrela ixten zuen berarendako izugarria izan den urtea, azken txapel horretaz gain, Opena, Errege Kopa

eta Federazioetan ere garaile atera bait da. Pilotaren hurrengo itxaropena da, eta Eugik sortzen zituen antzeko laudorioak jasotzen ditu zaleen partetik. Izan ere, askoren ustez txapeldun izateko dohain guztiak ditu, ez bait zaio ez gorputza ez burua falta, zuhertasuna eta jatortasuna tartean.

«Bi urtetan ez dut deus hitzegin nahi profesionaletara pasatzeaz»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Nafarroako Txapelketaren finalean, Armendarizen kontra, nahiko erraz irabazi zenuen. Horrelakoa espero zenuen?

RUBEN BELOKI.— Zailagoa izanen zelakoan nengoen. Azkenean 18-8 gelditu ginen, baina Armendarizek ez zuen inolako erraztasunik eman. Asko saiatu zen, eta airera sartu zen dezente. Oso tanto borrokatuak izan ziren, eta espero nuen baina errazagoa izan zen, bai, baina lanak eman zizkidan.

EGUNKARIA.— ADO programan iazko apirilatik zaude. Hor ibiltzek asko aldarazi dizu jokoak?

BELOKI.— Jakina, lehen, jubenil batetik eraman dezakeen prestakuntza egiten nuen, eta orain askoz lan fuerteago eta sendoagoa egiten dut. Orain arte hobera egiten nuen, pixkanaka, baina azken urte honetan oso azkarra izan da aldaketa, eta fisikoki asko hobetu dut.

EGUNKARIA.— Eta ze asmo dituzu Olinpiadetarako?

BELOKI.— Eskuz dagoen helburu bakarra urtea lortzea da, bestela, frakaso hutsa izanen litzateke. Ez dago beste biderik. Oraindik ez dakit zer jokatu dudana, baina orain eskuz banakan nago sartua. Hala ere, hori ikusiko dugu Olinpiadak heltzerakoan.

EGUNKARIA.— Zuk atzelari planta daukazu, baina lau t'erdiko torneotan ere oso partidu ederrak egin dituzu. Nola definituko zenuke zure jokoak?

BELOKI.— Neri izugarri gustatzen zait aurrean aritzea, eta asko lantzen dut arlo hori. Jokalari konpleto izatea nahiko nuke, atzean, aurrean, eta baita lau t'erdian aritzeko ere. Nahiko ongi moldatzen naiz, hala ere.

Jokalari sendoa naizela esango nuke, pilotari ongi ematen dion horietakoa, bi eskuekin. Sake ere nahiko ona daukat, eta txikitandik partiduen pisua eramateko ohitura dela eta, de-jadetan ere moldatzen naiz.

EGUNKARIA.— Galarzaren antza

Ez nuen espero Patxi Eugik, Olinpiadak hain gertu izanda, profesionaletara pasatzeko erabakia hartuko zuenik, eta asko harritu nintzen. Maila badauka, eta erakutsi du, baina itxaron egingo zuelakoan nengoen».

daukazula diote askok...

BELOKI.— Bai, askotan esan didate, biak oso lasaiak garelako jokoan, dotore. Hala ere, banaka bera baino askoz urduriago naiz, mugituagoa.

EGUNKARIA.— Iaz, zuekin ADO programan sartuta zegoela, profesionaletara pasatzea erabaki zuen Patxi Eugik. Orduan, nolabaiteko polemika izan zen ADO eta enpresen inguruan, eta beste jokalariren bat ere ukitu zuten. Nola ikusi zenuten guzti hori barrutik?

BELOKI.— Egia esanez, nik ez nuen espero berak horrelako erabakia hartuko zuenik, Olinpiadak hain gertu egonda. Hori pasata, profesionaletara igaroko zelakoan nengoen, baina ez hain laster. Asko harritu ninduen. Horrelako aukerarik izanda—hau izanen bait da pilota Olinpiadetan jokatzeko den azken aldia—, itxarongo zuelako ustetan nengoen, baina, inori deus esan gabe, bapatean, erabakia hartua zuela irakurri

genuen egunkarietan. Maila badauka, eta ongi erakutsi du, baina... ez dakit, berak jakingo du. Bestalde, nik garbi utzi nuen bi urtetan ez dudala deus hitzegin nahi profesionaletan aritzeari buruz, baina besteei seguraski zerbait esanen zieten.

EGUNKARIA.— Eta Olinpiadak pasata ere, ez duzu profesionaletara pasatzeko asmorik?

BELOKI.— Ez, soldadutza egin behar dudalako, eta ondok irailan Cuban izanen da 22 urtetik azpikoendako txapelketa. Hori eta gero, urtebete itxaron, eta ikusiko dugu.

EGUNKARIA.— Afizionatu mailari erreparatu gero, ematen du bakarrik Nafarroan dagoela etorkizuna: zu, Balerdi, Armendariz... Zer gertatzen da beste lurraldeetan?

BELOKI.— Nafarroako maila Bizkaia eta Gipuzkoaren gainetik dago, pilota antolatzeke moduagatik, bereziki. Beste lurraldeetan dena politika da, eta hemen ez. Lan asko eta ona egiten da eskoletan eta herri guztietan. Dauden gazteak ikusita, normala da jende gehiago ateratzea, eta afizioa izugarria da. Gainera afizionatuak ikustea beti oso erakargarria da, profesionalak, batzutan, gehiegi errepikatzen direlako. Lehenengo eguneko gure finalean, frontoia bete betean zegoen. Izugarriko giroa.

EGUNKARIA.— Eta ikusten duzu, Retegirendako ordezkorik?

BELOKI.— Ez dakit, baina Retegi eta besteen arteko diferentzia, nerendako, itzela da. Galarza eta Zezeaga hor daude, baina Retegiren mailaraino hel daitekeen bakarra, nere ustez, Eugi da.

EGUNKARIA.— Zuk irabazi diozu frankotan...

BELOKI.— Bai, baina, tira... oraindik... Ikusiko dugu.

NOSKI JATOR



ZVLDI EROA